

BIZITEGI ERAIKINAK
B MAILA

RAMÓN MARÍA LILI PASEALEKUA 2



Francisco Urkola, 1921.

Deskribapena

Eraikinaren neurri handiak, bi etxe kantoi egiten baititu, eraikuntzaren kalitatea, eta Urumea ibaiaren bokalean duen kokapena dira hirigintzaren mailan garrantzi handieneko alderdiak. Eraikinak beheko solairua du, proiektu originaleko goiko beste sei solairu, eta geroago erantsitako zazpigarren solairua, teilatupekoan, 1 zk.ko atarian. Bosgarren solairua fatxadako beste alderdietatik bereiztea nabarmetzen da; izan ere, eratzen duen erliebean zutabe-erdiak eta balaustrada eta guztiko balkoi hegaldunak dauzka. Atikoko karelak ordena horri segitzen dio idulki eta balaustre arteko txandaketan. Era berean, atzeraemana den seigarren solairuak silueta apaindu bat du koroa, eta dorre karratuek indarra ematen diete kantoiei. Fatxadako plano nagusietan hiruzuloka antolatzen dira hutsuneak eta metalezko balkoiak, baoak txandakatu egiten dira eta horretan. Beste elementu batzuk ere nabarmetzen dira, hala nola begiratokietako mainelak eta atari sarrerak. Atariak eta eskailerak kalitatezko antolaera eta eraikuntza daukate.

B mailaren babes araubidea

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: arotzeria.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlandua eta apaindura emokatuak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa bereziak: esku hartze unitatea Ramón María Lili Pasealekua 01ekin. Ataria eta eskailera aldaketarik gabe gordeko dira, jatorrizko elementu guztiekin batera.
- 4.- Nahitaezko lehengoritzeak: beheko solairuko bao originalak, persiana tolesgarriak eta estalkiko pinakulu apaindura.